

# Berezko Masterra Kirolaren kudeaketa

IRAKASKUNTZA-METODOLOGIA .....	2
TITULUAREN DESKRIBAPENA .....	4
UPV/EHUK EUROPAKO UNIBERTSITATE ONENEN ARTEAN EGON NAHI DU.....	4
BIKAINASUNeko IKERKETAREKIN KONPROMETITUA .....	4
BERE MASTER ETA GRADUONDOKOEN KALITATEA .....	4
IRAKASGAIK .....	4
MODULU EGITURA .....	5
IKASLEEN HARRERA SISTEMA.....	7
HAUTATZEA ETA ONARTZEA .....	7
BERE ZKO TITULUA EBALUATU ETA HOBETZEKO AURREIKUSITAKO SISTEMAK .....	8

## **IRAKASKUNTZA-METODOLOGIA**

Master hau hainbat metodologia konbinatuz emango da, hizlariaren arabera.

### **Irakaskuntza-modalitatea**

UPV/EHU-k 2020an argitaraturako "Irakaskuntzarako eta ikaskuntzarako orientabideak. 2020/21 ikasturtea"-n oinarriturik, sistema erdipresentziala (hibridoa; bimodala) erabiliko dugu, eGelaren laguntzarekin.

Aurrez aurreko irakaskuntza egokituak jarduera nagusiki presentziala eta telematikoa uztartzen ditu, baita ikasleen ikaskuntza autonomorako aurrez aurrekoak ez diren prestakuntza-jarduerak ere.

Laburbilduz, astero 1,5 kreditu emango dira, honela banatuta:

- Ostiralero, 5 ordu presentzial emango dira Ekonomia eta Enpresa Fakultatean, eta normalean bi hizlarik parte hartuko dute: lehenengoa 15: 00etatik 17: 15era eta bigarrena 17: 30etik 19: 45era.
- Larunbatero beste 5 ordu emango dira bideokonferentzia bidez (ahal dela, BlackBoard Collaborate), hau da, ikasleek urrutitik jarraitzen dituzte, modu sinkronoan, eta horrek irakaslearekin eta ikaskideekin elkarreragiteko aukera ematen die. Aurreko egunean landutako kontzeptuak garatzeko eta ordutegi bererako sortutako beste jarduera batzuekin osatzeko online eskola magistralak. Landu beharreko gaiaren arabera, baliteke saioa aurrez aurre antolatzea.
- Bi saio sinkroniko horiek hurrengo astean modu asinkronoan egin beharreko jarduerekin osatuko dira. Txostengileak gainbegiratutako zereginak izango dira, 5 ordukoak, gutxi gorabehera. Kasu horretan, irakasleak planifikatutako eta tutorizatutako zeregin autonomo bat egingo du taldeak, baina saio fisikorik egin gabe. Irakurketak programatzea, ikus-entzunezko materiala ikustea eta abar izango dira, eta horiei buruzko ariketak edo laburpenak edo hausnarketak egingo dira. Irakurketak, ariketak, arazoak, bideoak edo beste material batzuk lotu egiten dira edo eGelara igotzen dira. Jarduerak eGelak berak entregatu eta kalifikatuko lituzke, eta ematen diren irakasgaien ebaluazioaren parte izango lirateke.

Irakasle arduradunek egoki baderitzote helburu akademikoetarako eta irakaskuntzarako, irudiak eta/edo soinuak grabatu ahal izango dituzte, helburu horietarako gerorotuta kontsultatu ahal izateko, bai irakasgai/taldearen ardura duten irakasleek, bai dagokien ikasleek.

Egutegia	horas	Semanas
<p>1. Modulua: kirol Erakundeen Kudeaketan aditua. (19 ECTS)</p> <p>➤ (Urritik abendura))</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• 7134 ikasgaia- Merkataritza eta marketin Zuzendaritza kirol enpresa eta erakundeetan. 5 ECTS</li> <li>• 7078. ikasgaia- Enpresen eta kirol-erakundeen Ekonomia eta Finantza Zuzendaritza. 5 ECTS</li> <li>• 7136 ikasgaia- Pertsonen Kudeaketa Zuzendaritza enpresa eta kirol-erakundeetan. 5 ECTS</li> <li>• 7148 ikasgaia- Kirol zerbitzu eta instalazioen kudeaketa. 4 ECTS</li> </ul>	<p>19 ECTS= 65H sinkrono presentziala 65H sinkrono online 60H asinkronoa</p>	<p>13 aste</p>
<p>2. MODULUA: kirol Erakundeen Kudeaketan aditua Zuzendaritza eta Gerentzian. (16 ECTS)</p> <p>➤ (Urtariletik martxora)</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• 7132 ikasgaia- Kirol Enpresa eta Erakundeen Zuzendaritza Estrategikoa 5 ECTS</li> <li>• 7040 ikasgaia- Zuzendaritza-trebetasunak 4 ECTS</li> <li>• 7146 ikasgaia- 4ECTS Kirol Kudeaketa Laguntzeko Sistemak</li> <li>• 7150 ikasgaia- Adituen hitzaldiak. 3 ECTS</li> </ul>	<p>16 ECTS= 52,5 H sinkrono presentziala 52,5 H sinkrono online 55 H asinkronoa</p>	<p>11 aste</p>
<p>3. Modulua: berrikuntzan, teknologia berrietan eta ekitaldi handietan kirol-erakundeen kudeaketan aditua. (17 ECTS)</p> <p>➤- (Apiriletik uztaiera)</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• 7309 ikasgaia- Kirol Kudeaketari Aplikatutako Teknologia Berriak 5 ECTS</li> <li>• 7144 ikasgaia- Berrikuntza kudeatzea kirol-sektorean 5 ECTS</li> <li>• 7434 ikasgaia- Adituen ponentziak II. 3 ECTS</li> <li>• 7136 ikasgaia- Kirol Ekitaldi Handien Antolaketa. 4 ECTS</li> </ul>	<p>17 ECTS= 57,5 H sinkrono presentziala 57,5 H sinkrono online 55 H asinkronoa</p>	<p>12 aste</p>
❖ TFM (8 ECTS) (uztaila-iraila-abendua)		
❖ GUZTIRA =	60 ECTS	

## **TITULUAREN DESKRIBAPENA**

Titulu hau berezko master bat da. Berezko master eta graduondokoak barneak unibertsitateak berak antolatzen dituen ikasketa espezializatuak dira, malgutasunez egokitzen direnak gizartearen eskaerara. Era berean, oso lagungarriak dira karrera profesionala bideratzeko nahiz karrera horri beste norabide bat emateko.

Berezko tituluen barruan daude: berezko masterrak (60 kreditu edo gehiago); unibertsitate espezializazioa (30-59 kreditu); unibertsitateko aditu titulua (15-29 kreditu) eta unibertsitate hedakuntzako diploma (30-60 kreditu, eta ikasleek ez dute halaberrez unibertsitateko titulaziorik izan behar).

Horietaz gain, ikastaro osagarriak ere badaude (20 kreditu baino gutxiago), ikasturtean zehar ezagutzak birziklatu eta zabaltzeko eta arlo horietan espezializatzeko helburuaz antolatzen direnak eta dagokion unibertsitate ziurtagiria ematen dutenak.

Zure prestakuntza beharrei ez ezik, erabilgarri duzun denborari ere egokitzeko asmoz, 2020-2022 ikasturteetan hainbat berezko titulu moduluka egin ahal izango dituzu: kreditu gutxien dituzten programak batuz gero, maila goreneko titulazioak lortu ahal izango dituzu zure erritmora. Jarri gurekin harremanetan. Aholkua emango dizugu zure beharren arabera, eta zalantza guztiak argituko dizkizugu.

Gure unibertsitatea goi mailako hezkuntza erakunde nagusia da Euskadin, eta garrantzitsuenetako bat Espainian, bere emaitzak -irakaskuntza, ikerketa, berrikuntza eta garapen teknologikokoak- osotara kontuan hartuta. Laugarren postuan dago Espainiako 54 unibertsitateen sailkapenean (U-Ranking).

## **UPV/EHUK EUROPAKO UNIBERTSITATE ONENEN ARTEAN EGON NAHI DU**

- Nazioarteko Bikaintasun Campusaren kalifikazioa dauka.
- Bordeleko Unibertsitatearekin batera, Europan dagoen mugaz gaindiko campus bakarra sortu du.
- Munduan diren 20.000 inguru unibertsitateetatik UPV/EHU 500 onenen artean dago, Shanghaiko sailkapenaren arabera.
- 
- 

## **BIKAINASUNEN IKERKETAREKIN KONPROMETITUA**

Euskadin egiten den ikerketaren % 60 UPV/ EHUn egiten da. Nazioarteko itzal handiko sailkapenek gure ikerketen kalitatea erakusten dute:

- Scimago Institutions Ranking: 17. postua (Espainiako 249 ikerketa erakunderen artean).
- University Ranking by Academic Performance: 7. postua, Espainiako 59. unibertsitateen artean.
- 

## **BERE MASTER ETA GRADUONDOKOEN KALITATEA**

UPV/EHUK graduondoko 150 programa baino gehiago dauka hiru campusetan banatuak. Haietatik 50 berezko master eta graduondokoak dira, eta denek ere kalitate handienaren bermea dute, Unibasq Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziak egiaztatu baititu.

## **IRAKASGAIK**

Master honek 52 kreditu ECTS\* osatzen duten 12 irakasgai eta 8 kredituko Gradu Amaierako Lan bat dauzka.

**\*ECTS:** *“European Credit Transfer and Accumulation System”*.

*Hauek dira:*

- 1.- Kirol Enpresa eta Erakundeen Zuzendaritza Ekonomiko eta Finantzarioa. 5 ECTS
- 2.- Kirol Enpresa eta Erakundeen Zuzendaritza Komertziala eta Marketina. 5 ECTS
- 3.- Kirol Enpresa eta Erakundeen Pertsonen Kudeaketarako Zuzendaritza. 5 ECTS
- 4.- Kirol Instalazioen Kudeaketa. 4 ECTS
- 5.- Kirol Enpresa eta Erakundeen Zuzendaritza Estrategikoa. 5 ECTS
- 6.- Zuzendaritza Abileziak. 4 ECTS
- 7.- Kirol Kudeaketaren Euskarri Sistema. 4 ECTS
- 8.- Pertsona Adituen Hitzaldiak I. 3 ECTS
- 9.- Teknologia Berriak Kirol Kudeaketan. 5 ECTS
- 10.- Berrikuntzaren Kudeaketa Kirol Arloan. 5 ECTS
- 11.- Pertsona Adituen Hitzaldiak II. 3 ECTS
- 12.- Kirol Ekitaldi Handien Antolaketa. 4 ECTS
- Gradu Amaierako Lana. 8 ECTS

## **MODULU EGITURA**

### **Berezko titulua: Aditua + Espezializazioa + Masterra**

Kirolaren Kudeaketa Masterrak ikasketa plan malgua dauka, kirol kudeaketaren arloan dagoen hutsunea betetzeko helburua duena.

Uste dugu eskaintza hau osagarria eta erakargarria izan daitekeela publiko zabal eta heterogeneo batentzat (batik bat, Enpresen Administrazioeko egresatuentzat, Gorputz Hezkuntza eta Kiroleko egresatuentzat eta prestakuntza espezifikorik gabeko sektoreko profesionalentzat).

Ikasketa hauen beharraz duela urte batzuk ohartu baginen ere, bere garaian ezin izan zen denboran sendotzeko modukoa izango zen plan erakargarririk egin. Azkenean, berezko tituluen araudiaren babesean, ikasketa plan modular bat sortu dugu, master motako berezko titulu batean gauzatzen dena, aukera ematen duena Kirolaren Kudeaketaren arlo nagusi guztiak blokean edo moduluka lantzeko.

Prestakuntza modularren bidez, hiru modulutan (19, 16 eta 17 kreditukoak) oinarritzen da aurrez aurreko irakaskuntza guztia (52 ECTS kreditu). Moduluak modu korrelatiboan egin ondoren, master amaierako lan bat egin daiteke (8 ECTS), master titulua lortzeko aukera ematen duena.

Masterraren 60 kredituak egiteko modurik ez dutenei moduluak bereiz egiteko aukera ematen zaie. Modulu bakoitza amaitzean, aditu titulua lortzen da.

Gainera, bi aditu titulu espezializazio titulu baten baliokideak dira.

Azken batean, modulu formatuaren abantaila nagusia da modulu bakoitza bereiz egin daitekeela, urte desberdinetan, komeni bada ere ezarritako ibilbideari jarraitzea. Modulu ibilbidea hauxe da:

- ❖ 1. modulua: Kirol Erakundeen Kudeaketan Aditua. (19 ECTS)  
*1.- Kirol Enpresa eta Erakundeen Zuzendaritza Ekonomiko eta Finantzarioa. 5 ECTS*

- 2.- *Kirol Enpresa eta Erakundeen Zuzendaritza Komertziala eta Marketina. 5 ECTS*
- 3.- *Kirol Enpresa eta Erakundeen Pertsonen Kudeaketarako Zuzendaritza. 5 ECTS*
- 4.- *Kirol Instalazioen Kudeaketa. 4 ECTS*

**Norentzat:**

Rudeatzeko gaitasunak eskuratu nahi dituzten kirol sektoreko profesional graduatuak, lan egonkortasuna areagotzeko, proiektuetan buru izateko, kirol instalazio edo erakundeetan zerbitzuak edo arlo funtzionalak koordinatzeko.

Esperientzia profesionalik gabeko egresatu gazteak, kirolari lotutako merkatu dinamiko eta erakargarrian lan aukerak aztertzeke gogoz daudenak.

Kontuan izanik kolektibo horretan alderdi ekonomikoa muga izan daitekeela, erraztasunak emango ditugu kirol kudeaketaren arloko prestakuntza titulua eskuratzeko, prezio merkeagoen bidez, unibertsitate publiko bati dagokion gizarte funtzioa betez modu horretan.

- ❖ 2. modulua: Kirol Erakundeen Kudeaketan Aditua, Zuzendaritza eta Kudeaketa eginkizunetan. (16 ECTS)

5.- *Kirol Enpresa eta Erakundeen Zuzendaritza Estrategikoa. 5 ECTS*

6.- *Zuzendaritza Abileziak. 4 ECTS*

7.- *Kirol Kudeaketaren Euskarri Sistema. 4 ECTS*

8.- *Pertsona Adituen Hitzaldiak I. 3 ECTS*

**Norentzat:**

Kirol erakundeen kudeaketa, zuzendaritza eta gerentzia gaitasunak eskuratu nahi dituzten kirol sektoreko profesional graduatuak.

Esperientzia profesionalik gabeko egresatu gazteak, kirolari lotutako merkatu dinamiko eta erakargarrian lan aukerak aztertzeke gogoz daudenak.

Kontuan izanik kolektibo horretan alderdi ekonomikoa muga izan daitekeela, erraztasunak emango ditugu kirol kudeaketaren arloko prestakuntza titulua eskuratzeko, prezio merkeagoen bidez, unibertsitate publiko bati dagokion gizarte funtzioa betez modu horretan.

- ❖ 3. modulua: Kirol Erakundeen Kudeaketan Aditu, Berrikuntza, Teknologia Berrien eta Ekitaldi Handien eremuan. (17 ECTS)

9.- *Teknologia Berriak Kirol Kudeaketan. 5 ECTS*

10.- *Berrikuntzaren Kudeaketa Kirol Arloan. 5 ECTS*

11.- *Pertsona Adituen Hitzaldiak II. 3 ECTS*

12.- *Kirol Ekitaldi Handien Antolaketa. 4 ECTS*

**Norentzat:**

Kirolari lotutako berrikuntzen, teknologia berrien eta antolakuntza handien arloan gaitasunak eskuratu nahi dituzten kirol sektoreko profesional graduatuak.

Esperientzia profesionalik gabeko egresatu gazteak, kirolari lotutako merkatu dinamiko eta erakargarrian lan aukerak aztertzeke gogoz daudenak.

Kontuan izanik kolektibo horretan alderdi ekonomikoa muga izan daitekeela, erraztasunak emango ditugu kirol kudeaketaren arloko prestakuntza titulua eskuratzeko, prezio merkeagoen bidez, unibertsitate publiko bati dagokion gizarte funtzioa betez modu horretan.

- ✚ Unibertsitate Espezializazioa: Kirol Erakundeen Zuzendaritza eta Gerentzia Kudeaketa. 35 ECTS:

(1. modulua + 2. modulua)

Titulazioaren helburu nagusia da gaitasunetan sakontzeko aukera ematea kirol

erakundeetan zuzendaritza edo gerentzia erantzukizunak dituzten pertsonen. Gure ustez, egungo merkatuan, ezinbestekoa da kirolaren kudeatzaileei kudeaketa gaitasunak eta zuzendaritza trebetasunak garatzeko baliabide bat eskaintzea; bereziki, epe ertainera eginkizun horiek testuinguru lehiakor, global eta dinamikoetan bete beharko dituzten pertsonen.

Gainera, ekintzaileentzako aukerak identifikatzen ahaleginduko gara, berez ugari direnak goraka ari den kirolarena bezalako sektore batean.

- ✚ Unibertsitate Espezializazioa: Kirol Erakundeen Berrikuntza, Teknologia Berriak eta Ekitaldi Handien Kudeaketan. 36 ECTS:

*(1. modulua + 3. modulua)*

Titulazioaren helburu nagusia da kirol sektorearen egungo merkatuaren beharrei erantzutea. Merkatu horretan, kirol kudeatzaileen hiru erronka garrantzitsuenetakoak dira: kirol antolakuntzen eta zerbitzuen transformazio digitala; berrikuntza kudeatzea, haien proposamenak lehiakorrak izan daitezen; eta "Big Data"-ren inpaktua sektorean, esku hartzeko aukera gisa.

Horregatik, unibertsitate egresatuei ez ezik, egungo espezialista profesional batzuei ere eskaintzen zaie, kirol arloko kudeaketa erantzukizunak jada badituztenak, maila publikoan edo pribatuan, eta arlo berri hauek garrantzitsutzat hartzen dituztenak beren etorkizuneko garapen profesionalerako.

- ✚ Gradu Amaierako Lana (MAL). 8 ECTS

Lan hau ezinbesteko osagarria izango da master titulua lortzeko. Lanaren defentsa, epaimahai baten aurrean, prestakuntza ibilbidearen azken urratsa izango da, sektorean lanean hasi aurretik.

*Masterra (60) = 1. modulua (19) + 2. modulua (16) + 3. modulua (17) + M.A.L. (8)*

Horrela, hainbat prestakuntza programa eskaintzen dira, master titulua (60 ECTS) lortzera bideratuta dagoen ikasketa plan egituratu batetik abiatuta, erakargarriagoa eta moldakorragoa egiten duena onartu nahi dugun proposamena. Gainera, kirol sektoreko lan merkatuaren beharrei erantzuten zaie modu erreal, proportzional eta eraginkorrean, eta sinetsita gaude horrek eragin positiboa izango duela etorkizuneko master tituludunaren enplegarritasunean.

## **IKASLEEN HARRERA SISTEMA**

Lehen irakats egunean, batzorde akademikoak 2 ordu eskainiko dizkio masterra eta ikasturtean erabiliko ditugun baliabide guztiak aurkezteari. Ordenagailuen gelak ikusiko ditugu, eta masterra larunbatetan emango den Bibliotekaren eraikineko ikasgela. eGelapi plataforman sartuko gara (<https://egelapi.ehu.eus>), jarduerak egiteko erabiliko duguna, eta denak altan gaudela egiaztatuko dugu. Gainera, ordurako itxita edukiko ditugun ekitaldi edo bisiten plana aurkeztuko dugu, eta saiatuko gara matrikulatutako ikasleek planteatutako arazo eta galdera guztiei erantzuten.

## **HAUTATZEA ETA ONARTZEA**

Ikasleak hautatzeko irizpideak izango dira:

1. Master osoan matrikulatzen diren ikasleak.

2. Enpresen administrazio eta zuzendaritza graduatuak eta Gorputz Hezkuntza eta Kiroleko graduatuak.
3. Graduako ikasketetako batez besteko nota.
4. Lan esperientzia

## **BEREZKO TITULUA EBALUATU ETA HOBETZEKO AURREIKUSITAKO SISTEMAK**

### **Ebaluazio sistema**

Ezinbestekoa izango da klaseetara joatea –beste eskakizun batzuekin batera– titulu bakoitza lortzeko. Gutxieneko asistentzia % 75ekoa izango da.

Modulu bakoitzaren ebaluazioa irakasgai bakoitzeko jardueretan\* lortutako noten arabera izango da. Horietako bakoitza gainditu beharko da.

Irakasgai bakoitza ondo antolatzeko, batzorde akademikoak koordinatzaile bat izendatuko du, eta haren eginkizuna izango da materialak banatzea eta edukiak, kronograma eta jarduerak koordinatzea. Koordinatzailea unibertsitateko irakaslea izango da, eta irakasgai bakoitzari lotutako material guztia bilduko duen eGelapi plataforman sartzeko modua izango du.

Koordinatzaileak eta irakasleek egoki irizten badiote, modulu amaierako lana egitea (bakarka edo taldeka) eskatuko da.

\*Hainbat jarduera egin ahal izango dira irakasgaiak ebaluatzeko:

- Galdetegiak edo testak
- Egiazko erakundeetan gauzatzeko moduko kasuei buruzko lanak
- Lanak aurkeztea, bakarka edo taldeka
- Gai jakin bati buruzko lan espezifikoak
- Ahozko edo idatzizko proba

Ahaleginak egingo dira Master Amaierako Lana ikasle bakoitzak ikasturtean egin dituen lanen jarraipena izan dadin.